



ETE-ENTZAKO FORMAKUNTZA

Diseinu estrategikoa: ideiak errealitate bihurtuz



– Data eta ordutegia

Irailak 25, asteazkena. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio

– Iraupena

4 h.

– Plazak

30

– Norentzat

• Diseinua berritzeko erabili nahi duten 10 langile baino gehiagoko ETEentzat bakarrik.

• Gerentziak, berrikuntza-arduradunak, produktu-buruak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

Hauek dira prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak:

- Pertsonengan zentratutako diseinuak berrikuntza bultzatuz arazoak nola konpontzen dituen eta aukerak nola zabaltzen dituen ulertzea.
- Diseinua enpresaren estrategietan integratzen ikastea, produktu eta zerbitzu berritzaileak garatzeko.

Prestakuntzaren edukia

Diseinu estrategikoa

- Zer da diseinu estrategikoa eta zergatik da garrantzitsua enpresentzat.

Diseinu Holistikoa: Produktuak, Zerbitzuak eta Esperientziak

- Diseinuaren dimentsioak txertatzea eta aztertzea: produktuen diseinua, zerbitzuen diseinua eta esperientzien diseinua.
- Elementu desberdinek (produktuak eta zerbitzuak) multzo edo sistema koherente bat osatzeko elkarrekin nola lan egiten duten.

Pertsonarengan oinarritutako diseinua

- Design Thinking metodologia.
- Erabiltzaileak sakonki ezagutzearen garrantzia.
- Erabilgarritasuna, Design for All, Diseinu inklusiboa, irisgarritasuna.
- Pertsonarengan oinarritutako ikerketa-metodoak eta -teknikak.

Iraunkortasuna, ekodiseinua, diseinu zirkularra

- Diseinuaren erantzukizunari buruzko gogoeta.
- Iraunkortasuna, ekodiseinua eta diseinu zirkularra integratzea.

Ideiak sortzea

- Ideiak sortzeko sormen-teknikak aztertzea.
- Berrikuntza eta ikuspegi aniztasuna sustatzea.

Erabiltzaile-esperientzia

- Erabiltzaile-esperientziaren garrantzian sakontzea (UX).
- Esperientzia esanguratsuen diseinua.

Prototipatze azkarra

- Prototipatzearen garrantzia diseinu-prozesuan.
- Prototipatze azkarrerako tresnak eta teknikak.

Diseinuaren kudeaketa

- Iterazioaren garrantzia diseinu-prozesuan.
- Inpaktua kudeatzeko, kontrolatzeko, doitzeko, ebaluatzeko eta neurtzeko estrategiak.

Itxiera eta ondorioak

Norekin



Nora Inoriza

Erabiltzaileen estrategian eta esperientzian espezializatutako diseinatzailea.

Diseinu Estrategikoan eta Zerbitzuen Diseinuan liderra da DIARADESIGNen, eta mugikortasun, osasun eta industria arloko proiektuetan parte hartzen du. Bere

prestakuntza teknikoa eta sortzailea uztartzeak aukera ematen dio pertsonen eta ingurunearen portaera ikertzeko, ikuspegi holistiko, sistemiko eta enpatiko batetik estrategiak, esperientziak, produktuak edo zerbitzuak sortu eta diseinatzeko. 2022tik Euskadi Irratiko BAIPASA irratsaioan parte hartzen du, eta Diseinu Estrategikoa entzuleei hurbiltzen die, hausnarketen eta kasu praktikoen bidez.



Angélica Barco

Sormenezko zuzendaria, estrategian eta marken diseinuan aditua, eta Deustuko Unibertsitatean irakaslea.

20 urte baino gehiagoko eskarmentua du brandingean, lidergoan, diseinu-estrategian eta ikus-komunikazioan. Gaur egun, bere enpresa

propioa zuzentzen du, Angelica Barco Studio, marka-estrategien, identitate korporatiboaren eta identitate digitalaren diseinuan eta ezartzean espezializatutako aholkularitza. Markak funtsezko lau ikuspegitatik ulertzen ditu: estrategia, estetika, konpromisoa eta berrikuntza.

Produktu berri bat merkaturatzea. Nola egin bideragarri



– Data eta ordutegia

Azaroak 21, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Berrikuntzaren Euskal Agentzia, Innobasque. Laida Bidea 203.
Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea, Zamudio

– Iraupena

4 h.

– Plazak

30

– Norentzat

- 10 langile baino gehiagoko ETEentzat soilik, baldin eta produktu berriak garatzeko diseinuaren tresna berrikuntza-estrategian sartzeko beharra edo interesa badute. ETEak, bereziki industrialak eta produktu propioa dutenak.
- Zuzendari nagusiak, negozioa garatzeko zuzendariak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Produktu berri bat merkaturatzea. Nola egin bideragarri

Ikaskuntza-helburuak

Hauek dira prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak:

- Produktu eta zerbitzu berriak merkaturatzeko kontzeptuak eta metodologia eskuratzea.
- Merkataritza-prozesu bat diseinatzea kanal digitala integratuz.
- Gutxieneko produktu edo zerbitzu bideragarria eta salgarria ezartzea.
- Negozio-plan bat egiteko eta aztertze gakoak
- Produktuen bizi-zikloaren etapak eta finantzaketa-aukerak ezagutzea.

Prestakuntzaren edukia

- Produktu eta zerbitzu berriak merkaturatzeko Lean Startup kontzeptuak eta metodologia.
- Gutxieneko produktu edo zerbitzu bideragarri eta salgarri bat diseinatzea.
- Negozio berriaren hipotesi nagusiak zehaztu eta ebatzi.
- Zure merkataritza-prozesua diseinatzea, kanal digitalaren eskalagarritasuna konbinatuz.
- Negozio-ereduaren parametro kritikoak ezartzea.
- Nola egin negozio-plan bat eta nola aztertu haren eskalagarritasuna eta sentsibilitatea.
- Produktu eta negozio baten bizi-zikloa ulertzea eta oreka-puntua ezartzea.
- Negozioaren etapak eta finantzaketa-aukerak aztertzea.
- Euskadiko ETE industrialek egindako bidearen aurkezpena.

Norekin



Idoia Iceta

Ingeniaritza industrial Nafarroako Unibertsitatean, ESADEn PROMOCIONA emakume zuzendarientzako programan parte-hartzaile eta Garapen Iraunkorra eta ESG Executive programa egin du IESEn

Ibilbide luzea egin du osagai tekniko eta teknologiko

handiko enpresen eta proiektuen zuzendaritzan. DIGITALENTU eta ADI REVOLUTIONen sortzaileetako bat da, eta industria eremuko enpresei laguntzen die beren negozio-eredua berritzen eta digitalizazioan, berrikuntzan eta jasangarritasunean oinarritutako negozio berriak abian jartzen. Honez gain, INDI Partners enpresaren sortzaileetako bat da, eta industria-sektorea iraultzen duten oinarri teknologikoko enpresa-proiektuen aldeko apustua egiten du.

B2B azoketara joatea errentagarri egitea, marketin digitaleko estrategien bidez



– Data eta ordutegia

Urriak 3, osteguna. 9:30etatik 13:00etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

Arima Hotela (Magnolia Gela). Miramon Pasealekua, 162,
Donostia

– Iraupena

3,5 h.

– Plazak

30

– Norentzat

• Zuzendaritzako karguetarako, marketineko karguetarako eta egungo bezero-zorroa leialtzeko eta negozio berria erakartzeko estrategia digitalak garatzeko beharra edo interesa duten ETE industrialentzako edo B2B enpresentzako.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

B2B azoketara joatea errentagarri egitea, marketin digitaleko estrategien bidez

Ikaskuntza-helburuak

Hauek dira prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak:

- Ulertzea zer abantaila dituen azoka batera joatea aurretiko estrategia digitala landuta.
- Talde komertzialak modu autonomoan aktiba ditzakeen tresna digital nagusiak ezagutzea.
- Beste konpainia batzuen arrakasta- eta porrot-erreferentziak kontuan hartzea.
- Ikasitakoaren aplikazio praktiko posibleak identifikatzea.

Prestakuntzaren edukia

- Azokaren hautaketa.
- Bertaratze-eredua: stand-arekin edo bisitari gisa.
- Azoka aurretik: merkataritza-bilerak eginez.
- Azokan zehar: presentzia komunikatuz.
- Azoka ondoren: jarraipen komertziala.
- Landing page eta web orria oinarritzko kanpaleku gisa.
- Arrakasta eta porrot kasuak.
- Kasu praktikoa.

Norekin



Urko De La Torre Alberdi

ADI Revolutioneko CEOa eta EHUko eta Deusto Business Schooleko irakasle laguntzailea da. ESICetik Executive MBA

8 urte baino gehiagoko eskarmentua du estatu mailako zein nazioarteko enpresa taldeei eta

enpresa txiki eta ertain industrialei merkataritza-estrategia digitalak diseinatzen eta abian jartzen laguntzen.

3 gako Marketin Digital Industrialeko edo B2Bko zure estrategia emaitza komertzialak sortzen hasteko



– Data eta ordutegia

Azaroak 7, osteguna. 9:30etatik 13:00etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa.

– Lekua

BAT Dorrean (Kale Nagusia, 1, Bilbo, Bizkaia).

– Duración

3,5 horas.

– Iraupena

30

– Norentzat

• Zuzendaritzako karguetarako, marketineko karguetarako eta egungo bezero-zorroa leialtzeko eta negozio berria erakartzeko estrategia digitalak garatzeko beharra edo interesa duten ETE industrialentzako edo B2B enpresentzako.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

3 gako Marketin Digital Industrialeko edo B2Bko zure estrategia emaitza komertzialak sortzen hasteko

Ikaskuntza-helburuak

Hauek dira prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak:

- Ikuspen KPIen eta merkataritzako KPIen arteko aldea ulertzea.
- Online bezero berriak erakartzea errazten edo zigortzen duten elementu kritiko nagusiak ezagutzea.
- Beste konpainia batzuen arrakasta- eta porrot-erreferentziak aurkitzea.
- Ikasitakoaren aplikazio praktikoa posibleak identifikatzea.

Prestakuntzaren edukia

- “Emaitzak” hitza eta bere galbideratzea.
- 1. gakoa: proiektuaren helburuen diseinua.
- 2. gakoa: B2B erosketa-esperientzia B2C esperientziara hurbiltzea.
- 3. gakoa: ROIaren neurketa.
- Arrakasta eta porrot kasuak.
- Kasu praktikoa.

Norekin



Urko De La Torre Alberdi

ADI Revolutioneko CEOa eta EHUko eta Deusto Business Schooleko irakasle laguntzailea da. ESICetik Executive MBA

8 urte baino gehiagoko eskarmentua du estatu mailako zein nazioarteko enpresa taldeei eta enpresa txiki eta ertain industrialei merkataritza-estrategia digitalak diseinatzen eta abian jartzen laguntzen.

Manufaktura-industriako ETEen digitalizaziorako sarrera



– Data eta ordutegia

Urriak 10, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa

– Lekua

Euskadiko Teknologia Parkea - Gasteizko Campusa. Hermanos Lumiere, 11. 01510 Vitoria-Gasteiz

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
 - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
 - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produktzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Fabrikazio plantan produkzio-ingurunea digitalizatzearen potentziala, alderdi nagusiak eta jardun-arloak azaltzea.
- Kudeaketa-prozesuak digitalizatzeko aukerak eta abantailak erakustea, bai eta industriako ETEetan lotutako eta sortutako datuak ere.

Prestakuntzaren edukia

- Zer da digitalizazioa?
- Lantegi batean zer digitaliza daitekeen eta zer abantaila ekar ditzakeen bi arlotan:
 - produkzio-prozesuen eta makinaren eremuan.
 - kudeaketa-/informazio-sistemen eremuan, eta horien integrazio bertikala eta horizontala.
- Nola heldu digitalizazio-proiektu bati tailer batean.
 - Etapa nagusiak.
 - Dauden metodologiak.
- Diagnostiko orokorreko ariketa (AFMren T1000 autodiagnostikoko metodoaren bidez).
- Hurbileko kasu praktikoak azaltzea.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: AFM.

Norekin



Ibon Serrano Lasa

IDEKOko proiektu-burua.

Gironako Unibertsitatean Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan doktorea eta Mondragon

Unibertsitatean Ingeniaria.

Lean Manufacturing delakoaren paradigman oinarritutako ekoizpen-sistemen birdiseinuan

espezializatua. Esperientzia handia berrikuntzan, I+Gtik eratorritako emaitzen ustiapenean eta zaintza teknologikoan eta adimen lehiakorrean. Gaur egun, Ingurumen Jasangarritasunarekin lotutako proiektuak koordinatzen ditu IDEKOn eta DANOBATGROUPen, eta digitalizazioak funtsezko protagonismoa hartzen du bertan.

Manufaktura-industriako ETEetan produkzio-prozesuak eta makineria digitalizatzea



– Data eta ordutegia

Urriak 17, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa

– Lekua

Euskadiko Teknologia Parkea - Gasteizko Campusa. Hermanos
Lumiere, 11. 01510 Vitoria-Gasteiz

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
 - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
 - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produkzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Manufaktura-industriako ETEetan produkzio-prozesuak eta makineria digitalizatzea

Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Fabrikazio plantan produkzio-ingurunea digitalizatzearen potentziala azaltzea, alderdi eta jardun-arlo nagusiak azaltzea eta digitalizatzeko progresiborako metodoak proposatzea.

Prestakuntzaren edukia

- Monitorizatu beharreko ekipamendu motak (makinak, robotak, instalazioak...).
- Datu-iturri erabilgarriak (sentsoreak, PLCak, CNCak).
- Prozesuko datuak eskuratzetik, erabakiak hartzeko informazio baliagarria.
- Datuak atzemateko eta kudeatzeko metodoak eta tresnak:
 - Eskuratzea.
 - Monitorizazioa.
 - Biltegitzea.
 - Tratamendua eta diagnostikoa.
 - Análisisa eta hobekuntza.
- Informazioa integratzea eta bistaratzeko (MES sistemak).
- Negozio-eredu berri posibleak (Pay per use eta beste batzuk).
- Digitalizazio-proiektu baterako metodoak eta tresnak.
- Nork bere egoerari buruz hausnartzeko ariketa.
- Hurbileko kasu praktikoak.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: SAVVY DATA SYSTEMS.

Norekin



Iñigo Bediaga

Ideko-ko fabrikazio-prozesuen ikerketa-taldeko arduraduna.

Ingeniaritza tekniko mekanikoa Mondragon Unibertsitatean eta industria ingeniaria unibertsitate berean. Erreferentea produkzio-

sistemen diseinuan eta hobekuntzan, tresnak, osagarriak eta ekipoak barne. “Lean Manufacturing” sistemen inplementazioan ere aditua da.

Manufaktura-industriako ETEetan kudeaketa-sistemak digitalizatzea



– Data eta ordutegia

Urriak 24, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa

– Lekua

Euskadiko Teknologia Parkea - Gasteizko Campusa. Hermanos Lumiere, 11. 01510 Vitoria-Gasteiz

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Honako hauek ezagutzeko beharra edo interesa duten 10 langile baino gehiagoko manufaktura-industriako ETEentzat soilik:
 - digitalizazioak ekoizpen-prozesuan eta/edo kudeaketa-sistemetan duen potentziala.
 - nola ekin proiektu bati eremu horretan.
- Produktzio-prozesuko barne-digitalizazioko proiektuen kudeatzaileak, ekoizpen-zuzendaritzak, fabrikazio-zuzendaritzak eta profesional arduradunak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Industria-digitalizazioaren esparrua ezagutzea, industria-arloko ETEentzat duen potentziala azaltzea eta enpresaren digitalizazio-proiektu bati nola ekin erakustea.
- Kudeaketa-prozesuak eta ETE industrialetan lotutako eta sortutako datuak digitalizatzeko aukerak eta abantailak erakustea. Era berean, enpresaren prozesuei dagokienez, software soluzioen mapa argitzen saiatuko gara, eta lehentasunak ezartzeko eta ezartzeko proiektuak planteatuko ditugu.

Prestakuntzaren edukia

- Kudeaketa-prozesuak eta DIGITALIZAZIOAREN abantailak arlo guztietan:
 - Komertziala.
 - Administratiboa eta ekonomiko-finantzarioa.
 - Diseinua eta PLM (Product Life Management).
 - Erosketak eta hornikuntzak.
 - Ekoizpena.
 - Kalitatea.
 - Mantentze-lanak
 - Logistika.
 - Zerbitzuak.
- Zer da ERP? Eskaintzen dituen abantailak. Existitzen diren software batzuk.
- Ekoizpena: ERP eta MES erlazioa eta gainerako eskuratze-mailak.
- Nork bere egoerari buruz hausnartzeko ariketa.
- Hurbileko kasu praktikoak.

ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: FAGOR AUTOMATION.

Norekin



Oier Zelaieta

Ideko-ko fabrikazio-prozesuen ikerketa-taldeko arduraduna.

Ingeniaritza tekniko mekanikoa Mondragon Unibertsitatean eta industria ingeniaria unibertsitate berean. Erreferentea produkzio-

sistemen diseinuan eta hobekuntzan, tresnak, osagarriak eta ekipoa barne. “Lean Manufacturing” sistemen inplementazioan ere aditua da.

Nola arakatu aukera berriak enpresa bakoitzaren funtsezko gaitasunetatik abiatuta



– Data eta ordutegia

Azaroak 14, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa

– Lekua

Garaia Parke Teknologikoa. Goiru kalea 1, Arrasate

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

• 10 langile baino gehiagoko ETEentzat bakarrik, honako hauen beharra edo interesa dutenentzat:

- bezeroen beharretara egokitzea, negozio-estrategia birpentsatzea, negozio-lerro berriak sortzea, produktu eta zerbitzu berriak garatzea.
- eraldaketa digitalari ekitea, 4.0 Industrian erreferente izatea, merkatu berrietan sartzea, bezero berriak bilatzea, errentagarritasuna hobetzea, salmentak handitzea, nazioartekotzearen aldeko apustua egitea.

• Gerentziak, berrikuntza-arduradunak, negozio-garapeneko eta proiektu estrategikoetako arduradunak.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Nola arakatu aukera berriak enpresa bakoitzaren funtsezko gaitasunetatik abiatuta.

Ikaskuntza-helburuak

Prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak hauek dira:

- Negozio-eredu berrien ideiak identifikatzeko ikuspegi metodologikoa ezagutzea.
- Negozio-idea bat aztertzeke eta baliozkotzeko elementu garrantzitsuenak zein diren lehenestea.
- Negozio-idea bat garatzeko hurbilketa metodologiko bat ezagutzea.

Prestakuntzaren edukia

- Lotutako eta loturarik gabeko enpresa-dibertsifikazioa eta negozio-eredu berriak.
- Negozio-eredu berriak identifikatzea.
- Negozio berrien ideien hasierako azterketa eta baliozkotzea.
- Negozioen garapena.

Norekin



Jon Aldazabal Basauri

Mondragon Unibertsitateko (MU) enpresa fakultateko negozio garapeneko eta profesionalentzako prestakuntzako koordinatzailea eta MIK S.Koop-eko ikertzailea

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan doktorea da, eta

bere ikerketa-, transferentzia- eta irakaskuntza-esparruek estrategia, negozioen garapena eta berrikuntzaren kudeaketa dituzte ardatz. Bertan, arlo publikoan eta pribatuan proiektuak garatzen ditu 2004tik.



Álvaro Sabas

C2B Negozioaren Gerentzia eta Garapena.

Filosofian lizentziatua UPV/EHU eta

Giza Baliabideetako masterra Deustuko

Unibertsitatean. C2Bko gerentea da, eta enpresa

handietan eta aholkularitza-enpresa ezagunetan

egin du lan. Esperientzia du enpresa-estrategian, digitalizazioan

eta -berrikuntzan. C2Btik pertsonen gaitasunetan eta antolaketa-

lehiakortasunean eragitea bilatzen du.

Nola errentagarri bihurtu talentua. Galera aurre-hartzea: adinaren kudeaketa



– Data eta ordutegia

Azaroak 28, osteguna. 9:30etatik 13:30etara

– Formatua

Aurrez aurrekoa

– Lekua

Arima Hotela (Magnolia Gela). Miramón Pasealekua, 162,
Donostia

– Iraupena

4 ordu.

– Plazak

30

– Norentzat

- Diseinuaren tresna berrikuntza-estrategian sartzeko beharra edo interesa duten 10 langiletik gorako ETEentzat bakarrik, erabiltzaileak eta ingurumen-jasangarritasuna ardatz dituzten produktu eta zerbitzu berriak garatzeko.

- Gerentziak, berrikuntza-arduradunak, produktu-burua.

* Gehienez bi pertsona enpresa bakoitzeko.

Ikaskuntza-helburuak

Hauek dira prestakuntza-ekintza honen ikaskuntza-helburuak:

- Negozioak lehiakortasuna gal ez dezan, adina kudeatzearen eta belaunaldien arteko ezagutzaren transferentziaren garrantziaz ohartzea.
- Enpresan adinaren kudeaketarekin lotutako funtsezko elementuen ezagutza- eta ezarpen-maila diagnostikatzea.
- Nire enpresa adinaren kudeaketan eta belaunaldien arteko ezagutzaren transferentzian nola kokatzen den jakiteko tresnak erabiltzea.
- Erantzunak eta irtenbideak eskaintzea gure lan-taldeen zahartzearen erronkari aurre egiteko eta aldaketaren buru izateko.

Prestakuntzaren edukia

- Zergatik kudeatu behar da adina enpresan. Iraunkortasunean duen eragina.
- Enpresaren “tenperatura demografikoa” neurtu: zein da zahartze-maila? Zenbat belaunaldi bizi dira elkarrekin enpresan?
- Prest zaude zure langileen zahartzeari aurre egiteko?
- Adinaren kudeaketan eragina duten elementuak
- Enpresak adinaren kudeaketarekin duen konpromisoari buruzko oinarrizko autodiagnostikoa.
- Non kokatzen gara: hausnarketarako ariketa laburra.
- Zer egoera bizi dituzte ETEek langileen zahartzearekin lotuta?
- Ohiko arazoak (programatutako eta programatu gabeko langileen alde egiteak, postu kritikoak, ezagutza galtzea, ezagutza trukatzeko espaziorik eza, know-howaren sistematizaziorik eza, talentua erakartzea eta fidelizatzea...)...
- Eta gai hauek ETEetatik jorratzeko zailtasunak.
- Nola gida dezakegu aldaketa? Adinaren eta ezagutzaren kudeaketa eraldatzeko eta bultzatzeko estrategiak eta irtenbideak. Aurrea hartzeko moduak.

Norekin



Manu Olano

CIDEC-Innovación y Desarrollo Social erakundeko zuzendaria. Ikerpartnerseko bazkidea.

Enpresei laguntzen diet antolaketa-kultura, ezagutzaren kudeaketa eta zeharkako gaitasunak sendotzen dituzten estrategiak sortzen. Esperientzia dut adinak kudeatzeko eta belaunaldien arteko ezagutza transferitzeko prozesuak eta tresnak diseinatzen, eta enpresetan zahartzearen arazoari eta talentu berriaren beharrari erantzunak ematen. 30 urtetik gorako eskarmentua tokiko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta nazioarteko

ikerketa-, aholkularitza- eta ebaluazio-proiektuetan (Mexiko, Argentina, Honduras, Peru, Txile, Kuba, etab.), Munduko Bankuarentzat eta BIDarentzat.

Soziologoa (Deustuko Unibertsitatea). Pertsonen Kudeaketako graduondokoa (Deustuko Merkataritza Unibertsitatea).

“Gipuzkoako enpresetan adinaren kudeaketa indartzeko eta ebaluatzeko orientabideak. Enpresentzako gida. Gipuzkoako Foru Aldundia”;

“Euskadiko erakundeetan adina kudeatzeko gida. Innobasque”; “Ezagutzaren kultura eraikiz pertsonengan eta erakundeetan. CIDEC Lan Koadernoan”.